

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUA

Iragarkia

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko (aurrerantzean, «KUP») Kudeatzaileak 2022ko abenduaren 22ko datarekin (2022ko abenduaren 30eko 247 zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) KUPeko A1 azpitaldeko Administrazio Orokorreko Teknikari plaza bat, merezimendu lehiaketa bidez, karrerako funtzionario gisa betetzeko enplegua egonkortzeko ezohiko hautaketa-prozesuaren deialdia onartu zuen.

2023ko ekainaren 23an (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 125. zk., 2023ko ekainaren 29koa), KUPeko Kudeatzaileak deialdi horretako epaimahai kalifikatzailea izendatu zuen.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.6 artikulua ezartzen duenez, espezialitate-printzipioa betez, epaimahaiko kideen erdiak, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du.

Era berean, lege horren 22.4 artikulua honako hau ezartzen du: «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak parte hartuko du enplegatu publikoak hautatzeko prozesuetan, hala funtzionarioei dagozkienetan nola langile lan-kontratudunei buruzkoetan. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat izan beharko du dagokion hautaketa-organoak.»

2023ko ekainaren 23ko Epaimahai Kalifikatzailearen izendapenean espezialitate-printzipioa betetzen ez zela ikusirik, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari falta zela-eta, epaimahaiaren osaera aldatu behar da, aipatutako manuak betetzeko.

Horregatik guztiagatik, KUPeko Kudeatzaileak, KUPeko Estatutuen (2011ko urtarrilaren 13ko 8. zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) 17.h) artikuluan xedatutakoari jarraituz, honakoa

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Epaimahai Kalifikatzailearen osaera aldatzea. Osaera hau izango du:

PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE SAN SEBASTIÁN

Anuncio

La Gerente del Patronato Municipal de Deportes de Donostia-San Sebastián (en adelante, «PMD») aprobó, en fecha 22 de diciembre de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 247, de 30 de diciembre de 2023), la convocatoria de un proceso selectivo extraordinario de estabilización de empleo para la provisión, mediante concurso de méritos, como funcionario/a de carrera de una plaza de Técnico/a de Administración General del subgrupo A1 del PMD.

Con fecha 23 de junio de 2023 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 125, de 29 de junio de 2023), la Gerente del PMD nombró el Tribunal Calificador de la citada convocatoria.

El artículo 81.6 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco establece, en cumplimiento del principio de especialidad, que al menos la mitad de las personas miembros del tribunal deberán poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimientos que la exigida para el ingreso.

Asimismo, el artículo 22.4 de la citada Ley establece lo siguiente: «El Instituto Vasco de Administración Pública participará en los procesos de selección de empleadas y empleados públicos, tanto de personal funcionario como de personal laboral. A tal efecto, el correspondiente órgano de selección deberá contar con una persona representante del Instituto Vasco de Administración Pública.»

Detectado incumplimiento del principio de especialidad, así como falta de representación del Instituto Vasco de Administración Pública, en el nombramiento del Tribunal Calificador de fecha 23 de junio de 2023, procede modificar la composición del mismo, con el fin de dar cumplimiento a los citados preceptos.

Por todo ello, la Gerente del PMD, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 17.h) de los Estatutos del PMD (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 8, de 13 de enero de 2011),

RESUELVO

Primero. Modificar la composición del Tribunal Calificador, que queda constituido de la siguiente manera:

	<i>Titularrak / Titulares</i>	<i>Ordezkoak / Suplentes</i>
Lehendakaria Presidente/a	Leire Landa Sedano KUPeko Kudeatzailea Gerente del PMD	Jon Ander García de Cortázar Aguirrezabal KUPeko Hurbileko kirol teknikaria Técnico de proximidad del PMD
Idazkaria Secretario/a	Iñaki Iruretagoiena Martin KUPeko Arretarako eta marketineko arduraduna Responsable de atención y marketing del PMD	Gotzon Bandres Hermua KUPeko Komunikazioko erdi mailako teknikaria Técnico medio de comunicación del PMD
Bokala Vocal	Iñaki Zabaleta Munduate KUPeko Kirol jardueren arduraduna Responsable de actividades deportivas del PMD	Eukeni Lopez Ganuza KUPeko Kirol jardueretako teknikaria Técnico de actividades deportivas del PMD

	Titularrak / Titulares	Ordezkoak / Suplentes
Bokala Vocal	Loreto Sola Donostiako Udaleko Zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko zerbitzuaren burua Jefa del servicio de gestión tributaria e inspección del Ayuntamiento de Donostia	Lourdes Berasarte Donostiako Udaleko Herritarren arretarako administrazio atalaren burua Jefa de la Sección administrativa de atención ciudadana del Ayuntamiento de Donostia.
Bokala Vocal	Itziar Telleria Arrieta DonostiaTIKeko Idazkari teknikoa Secretaria técnica de DonostiaTik	Elisabeth Arrillaga Donostiako Udaleko Ekonomia Kudeaketaren zuzendaria Directora de Gestión Económica del Ayuntamiento de Donostia
Bokala Vocal	M. Coro Gorriti Iparraguirre IVAPeko ordezkaria En representación del IVAP	Karmele Ugarriza Izarra IVAPeko ordezkaria En representación del IVAP

Bigarrena. Ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta KUPen edo/eta Donostiako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzea.

Donostia, 2023ko urriaren 9a.—Leire Landa Sedano, KUPeko Kudeatzailea. (7626)

Segundo. Publicar la presente Resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios y página web del PMD y/o del Ayuntamiento de San Sebastián.

San Sebastián, a 9 de octubre de 2023.—La gerente del PMD, Leire Landa Sedano. (7626)